

INSTITUZIOEN ERREFORMA EZ DELA HITZARMENEAN BILTZEN KRITIKATU DUTE ITALIAK, FRANTZIAK ETA BELGIKAK

Batasuneko hamabost ministroek Amsterdamgo Ituna hitzartu dute

■ Europako Batasuneko hamabost Atzerri ministroek atzo sinatu zuten Amsterdamgo ituna. Europa eraikitzeke aurrerapausoa da askoren hitzetan, baina gutxitxotzat ere jo da, ekialdeko Europako herriei lekua egiteko erreforma instituzionala egin ez delako.

Agentziak / Amsterdam

ITUNA Holandako Amsterdam hiriburuko Jauregiko Hiritarren Aretoan sinatu zuten hamabost Atzerri ministroek. Amsterdamgo Itunak moldatu egiten du Maastrichteko Ituna, eta aurrerapausoak biltzen ditu atzerri politika, defentsa, justizia eta barne gaietan. Hala ere, Europako Batasuna osatzen duten hamabost herrialdeetako legebiltzarrek berretsi beharko dute ituna 1998. urtearen amaieran indarrean jarri aurretik. Danimarka, Irlanda eta Portugalen galdeketa egingo zaie herritarrei ituna onartzen duten ala ez jakiteko.

Amsterdamgo Itunak badu hutsune bat, ordea: ez du instituzioen erreforma aurrekusten ekialdeko eta erdi Europako herrialdeei Batasunean sartzeko lekua egiteko. Ituna kritikatu egin zuten Italiak, Frantziak eta Belgikak. Erakundearen erreforma egin ez izana gaitzetsi zuten herrialde horietako Atzerri ministroek, «horrek ondorioak izan ditzakeelako Europako Batasunaren hedatzean».

Jose Maria Gil Roblesek, Europako Legebiltzarreko lehendakariak, ituna sinatzeko ekitaldian esan zuen ez dela nahikoa «era erreformatea». «Beharrezkoa da klima aldatzea, eta ordainketa eta diru laguntzak besterik aipatzen ez dituen nazionalismo demagogiko batekin ez jokatzea». Batasuneko herrialde guztiek «mozkinak» lortzen dituztela azpimarratu zuen, eta hori ez ahazteko gaineratu.



MARCO OKHUIZEN / EPA

«Zuzendaritza berrian aurrerapauso handia» dela esan zuen Gil Roblesek. Gainera, itunak aldatzeko erak berrikustez hausnarketa sakona egitea eskatu zuen, «mende erdia etengabe aldaketak egiten eman eta gero, gaur egungo sistema mugara iritsi da eta». Europako Legebiltzarreko lehendakariaren iritziz, aldaketa eta aurrerapausoak posible izango dira «Europako Batasunaren

etorkizunaz oraindik dauden zailtasunak desagertaraztean, hau da, diru bakarra finkatzean eta prebisio finantzario berriak onartzen ditugunean».

Hiritarren parte hartzea • Holandako lehen ministro Wim Kokek nabarmendu egin zuen ituna Hiritarren Aretoan sinatu izana. «Hiritar europarra eta prozesuetan horren erabateko parte har-

tzea izan da itunaren oinarria», adierazi zuen. Kokek esan zuenez, itunak «oinarriak eta irizpideak biltzen ditu Batasuna osatzen duten herrialdeei laguntzeko Europaren baitan laguntzeko langabeziaren arazo mingarria konpontzen». Kriminalitatearen aurka batera borrokatzeko irizpideak ere biltzen ditu, izan ere, «itunak posible egiten du irekiera eta segurtasuna batera egotea».

Manifestariak ministroei txistuka

Ehundaka manifestarik txistu egin zieten Amsterdamgo Jauregiaren atarira agertu ziren Europako buruzagiei. «Utz iezaiezue herritarrei beren kabuz erabakitzen Europari buruz», eta «Euroak giza zatiketa ekarriko du» irakur zitekeen manifestarietako eskuetan zituzten pankartetan. Manifestarietako Europako Batasuneko banderak erre zituzten eta ke pote bat jaurti zuten Jauregiaren plazan. Poliziak manifestarien aurka egin zuen eta Jauregiaren ingurutik bidali zituen, baina ez zuen inor atxilotu.

Europako Batzordearen lehendakari Jacques Santerrek esan zuen onartu egin behar dela itunean aurrerapausoak egin direla, batez ere hiritarrei dagokienean. «Europako araudi berriak pauso handia eman du aurrera askatasun, segurtasun eta justizia alorretan». Schengen batasunean berehala barneratu behar dela azaldu zuen. X

NATOren hedatzea erakundearen sartuko diren herriek finantzatu beharko dute

■ Hungariak, Poloniak eta Txekiar Errepublikak gastu handia dute Armada modernizatzen

Agentziak / Maastricht

NATO Europako Ekialdera hedatzeak sortuko dituen gastuen zati handiena erakunde militarrean sartuko diren herrialdeek euren gain hartzea nahi dute egun NATOko kide diren estatueta Defentsa ministroek. Hain zuzen ere, herenegun eta atzo Maastrichten bildu ziren Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeak (NATO) Defentsa ministroak, hedatzeak ekarriko dituen gastuak eta arazoak nolakoak izango diren aztertzeke. Hungaria, Polonia eta Txekiar Errepublika aukeratu dituzte hedatzearen lehen fasean NATOko kide egiteko, hots, 1999an.

Javier Solana NATOko idazkari nagusiak eta William Cohen EEBBetako Defentsarako Estatu idazkariak komunikabideei atzo adierazi zieten, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeak kide guztiak ados daude hedatzearen finantziaketaren inguruan: hau da, gastu handienak Hungariak, Poloniak eta Txekiar Errepublikak ordaindu behar dituztela usete dute.

Izan ere, dirutza horren zatirik handiena herrialde horietako armadak modernizatzeke behar da. Hungaria, Polonia eta Txekiar Errepublikako armadak jendetsuegiak dira, batetik, Ipar Atlantikoko Erakundearen sartzeko. Bestetik, armamendua nahiko

zaharkitua dute, eta, gainera, Errusiaren menpe egotera behartzen ditu, han egindakoa baita.

Arazo hori konpontzeko diru inbertsio handia egin behar da. NATO n sartu nahi badute, Armadarako diru gehiago bideratzen hasi beharko dute Hungariak, Poloniak eta Txekiar Errepublikak, gutxienez, Ipar Atlantikoko Erakundeak gomendatu bezala, Barne Produktu Gordinaren (BPG) %3ra iritsi arte.

Hungariak BPGaren %1,4 bideratzen du egun Defentsara. 885 blindatu ditu, borrokarako 59 helikoptero, 849 artilleria unitate eta 126 hegazkin.

Poloniak, berriz, BPGren %2,7 erabiltzen du Defentsarako. Ar-



Txekiar Errepublikako Defentsa ministroa eta Hungariako Maastrichteko bileran.

HERMAN PIETERSE/EPA

madak 1.721 blindatu ditu, ia guztiak T55 sobietarrak, 1955ean eraikitakoak, eta gaur egungo borroketarako ez dute balio. Halaber, 22 helikoptero ditu

eta 1.581 artilleria unitate. Txekiar Errepublikak, azkenik, BPGren 1,7 bideratzen du Defentsara, 953 blindatu ditu, artilleriako 830 unitate eta 126 hegazkin. X